

2025EKO PROBA LIBREETARAKO JARRAIBIDEAK

Institurako sarbidea

Azterketak hasteko ordu ofizialak 8: 15ak eta 11:00ak izango dira; gelako ateak 5 minutu lehenago irekiko dira. Lehen minutuak ikasleak kokatzeko, dokumentuak aztertu, jarraibideak azaldu eta gauzak argitzeko izango dira.

Ikastetxea eta azterketa-gelak seinaleztatzea

Ikastetxeko sarreran ziklo bakoitzeko azterketen informazioa egongo da:

- o Egun bakoitzeko moduluak, orduak eta gelak adieraziko dira.
- o Azterketa-gelen kokapena 3. solairuan izango da: 317 eta 319 geletan.

Azterketa gela bakoitzaren atean, egun eta ordu bakoitzeko ikasleen zerrenda egongo da, ziklo eta modulu bakoitzeko.

Probak egitean jarraitu beharreko jarraibideak

- Izangaiek mahaitik kanpo utzi behar dituzte beren gauzak, azterketa egiteko orduan (aulkiaren azpian adibidez). Telefono mugikorra, smartwatch-a eta mota horietako gailuak itzalita eta gordeta egon behar dira.
- Izangai bakoitzak mahai gainean utziko du bere identifikazio-agiria (NANa, gidabaimena, pasaportea edo egoitza-baimena baino ez dira onartuko), bertaratze-frogagirik egin behar bada ere.
- Inork ezin du ikasgela utzi proba hasi zenetik 30 minutu igaro arte. Une horretatik aurrera, izangaiei ez zaie sartzen utziko.
- Izangaiak gehienez 2 ordu izango ditu proba egiteko.
- Irizpide orokor gisa, ez zaio azterketarekin lotutako galderei erantzuten.
- Kalkulagailu zientifikoa erabili ahal izango da (betiere irakasleak horretarako baimena ematen badu), baina inola ere ez telefono mugikorra, smartwatch, Tablet...
- Azterketatik kanporatuko dira kopiatzen edo/eta telefono mugikorra edo bestelako gailu elektronikoa erabiltzen harrapatzen direnak.
- Azterketa guztiak boligrafo urdinarekin egingo dira.
- Denbora amaitutakoan, ezin izango da beste ezer idatzi. Azterketa mahai gainean uzteko esango zaie ikasleei.
- Izangaiak proba guztiak entregatu behar ditu, galderarik erantzun ez badu ere.
- Izangaiak bertaratze-frogagiri bat behar badu, proba amaitzean emango zaio.

Laborategi edo tailerreko zati praktikoa

Irakasle arduradun bakoitzak adieraziko die ikasleei noiz izango den tailer edo laborategiko azterketa eguna eta ordua.

Probak egin ostean:

- ❑ Kalifikazioak argitaratzea: **Ekainaren 13an** ikusgai egongo dira 00:00tan ikasgunean
- ❑ Berrikustekak:
 - o Eskaerak jasotzea e-mail bidez: **Ekainaren 17a 9:00-14:00** proba.libreak@franciscodevitoria.net emailen berrikusteko ereduarekin.
 - o Berrikustekak onartu edo deuseztatzea: **Ekainaren 18a 14:15arte**. Emailaz jakinaraziko da atxikitutako dokumentuaren bidez.
- ❑ Erreklamazioak:
 - o Erreklamazioak jasotzea e-mail bidez: **Ekainaren 19/20 9:00-12:00** proba.libreak@franciscodevitoria.net emailen erreklamazioen ereduarekin.
 - o Erreklamazioen erantzunak: **Ekainaren 23a 14:15arte**. Presentzialki edo emailaz jakinaraziko da atxikitutako dokumentuaren bidez.
Presentzialki izango da erreklamazioa printzipioz; egiaztagiri ofiziala behar da presentzialki ezin bada egin eta erreklamazioa online egin behar bada.
- ❑ Akta sinadura: **Ekainaren 24an**
- ❑ Behin betiko notak: Ikasgunean azalduko dira **ekainaren 25an**